

**Kaudimen egoera sendoak eta bere aktiboen kalitateak** ematen dioten konfiantzan oinarrituta, zuzkiduren politikan **zuhurtziazko neurriak** ezarri ditu

## **Kutxabankek 92 milioi euroko emaitza lortu du, horniduretara 145 milioi bideratu ondoren**

- **Covid-19k jotako familia eta enpresei laguntzeko ahalegina egin du: 1.330 milioi euro bideratu dizkie, eta 4.000 hipoteka-kontratu negoziatu ditu, inguruarekin duen konpromisoaren adierazle**
- **Urtarrileko eta otsaileko jarduera komertzial bizia alarma egoerak eragotzi du, banka-negozioa geldiarazi baitu**
- **Inbertsio fondoak bereganatzen lider izan da lehen hiruhilekoan, 489 milioi euro erakarrita, eta kudeatzaileen bostgarren postua eskuratu du**
- **Kaudimenean alorraren buruan da, %16,6ko ratioarekin, eta berankortasuna %2,95era arte jaitsi da**
- **Rosa Leal presidenteorde lehena eta kontseilari izendatu dute Kutxa Fundazioaren ordezkari**

**2020ko apirilaren 30ean**. Kutxabank Taldeak **91,7 milioi euroko** mozkin garbia lortu du urteko lehen hiruhilekoan, iaz garai berean baino **%13,4 gutxiago**.

Emaitza hau **horniduretara 145 milioi** euro bideratu ostean lortu da, iaz urte osoan baino ia **5 milioi** gehiago. Zuzkidura hau pandemiak sortutako ziurgabetasunari aurre egiteko erreserbatu da.

Pandemiak aurrera egin duen testuinguruan, munduko ekonomiek eta **petrolioaren** prezioak **gainbeheran** izanik, finantza merkatuek eragin lazgarriak jasan ondoren eta **lurrunkortasuna** nagusi dela, Kutxabank Taldearen lehentasunetako bat egoera ekonomiko honek sortutako eraginak samurtzea izan da, **kaudimenean, kapitalizazioan eta likidotasunean duen egoera sendoan** oinarrituta.

Lan egiten duen inguruekin daukan **konpromiso sozialaren** erakusle, krisialdiari aurre egiteko **neurri-sorta zehatza** jarri du abian, eta bat egin du Gobernu desberdinek enpresen likidotasuna bermatzeko sortu dituzten neurri publikoekin.

Honela, martxoko azken hamabostalditik aurrera, **1.330 milioi** euro inguru bideratu ditu **familiei, enpresei eta norbanakoei** laguntzeko finantzazioan. Beren eskuetan **26.000 milioi** euro ipini ditu aurrez onarturiko maileguetan.

**Pentsioen eta langabeen prestazioen** ordainketak aurreratzeaz gain, eta **hornitzaileen ordainketak** 15 egunetik behera mantentzearekin batera, negozio kontuetan eta TPVen mantenuan hobariak jasotzen dituzten **merkatarietarako tratamendu berezia** eskaini die.

**Etxebizitzaren** esparruan, **4.000 kontratu** formalizatu ditu zordun-hipotekarioak babesteko, ohiko etxebizitzaren mailegua ordaintzerakoan **berandutzeak** eskuratu ditzaten. **Babespeko etxebizitzetan** hiru hilabeteko alokairu-errentak barkatu dizkie enplegu erregulazioak jasaten ari diren familia eta autonomoei, eta lanik gabe gelditu diren lagunei.

Aurreikuspen planen jabeek hauen **zati bat berreskuratzeko** baldintzak ere malgutu ditu, **contactless txartelen mugak** 50 eurora arte zabaldu ditu, CECA sareko kutxazainetan dirua ateratzerakoan **komisioak ezabatu** ditu, eta mailegu-txartelen **kargua lau egunetan** atzeratu du.

### **Banka digitala, ezinbestekoa**

Testuinguru berri honetan, Erakundeak **kanal alternatibo**en alde egin duen apustua ezinbestekoa izan da. Telefonoz, online Bankaz edo Kutxabanken 'app'-etan **2.200 kudeatzaile komertzial** ari dira lanean, eta urruneko zerbitzuaren bitartez **800.000 bezero** inguruk jasotzen dute arreta.

Telefono bidezko Bankak konexioak **bikoiztu** egin ditu, eta Online eta Banka mugikorraren bidez eginiko kudeaketek hazkunde esponentziala izan dute. Online burutu da **kontsumorako maileguen %25**, eta **salmenta digitalak bi aldiz** baino gehiago hazi dira.

Kutxabankek zabalik izan du **bere bulego sarea**, herritarrei banka-zerbitzuak eskuratzeko eskubidea bermatu behar diela iritzita, oinarriko zerbitzu izendatu baitira. Honela, asteotan **bulegoen %70 inguru** zabalik izan da, bezero eta langileei oinarriko segurtasun baliabideak eskainiz, beti ere erabat beharrezkoa ez bada bulegoetara ez joateko gomendioa eginda.

### **Merkatuen konfiantza, bere sendotasunarengatik**

Kutxabanken xehetako sareak 2020ko lehen bi hilabeteetan jarduera komertzial oso bizia izan du, merkatuen batez bestekoaren gainetik, ekitaldirako ezarri ziren **helburuen haritik**, bai mailegu-hipotekario berrietan, kontsumorako maileguetan, nola baliabideetan.

**Bilakaera positibo** honi bete-betean eragin dio osasun-krisialdiak, jarduera bertan behera geldituz. Egoera honek, kontratazio berrietan finkatu ziren helburuak urrunditu ditu.

Bezereen baliabideen bilakaeran erabateko eragin negatiboa izan dute balorazioek. Hala ere, negozio sareek **administraturiko baliabideak %2,2** hazi dira. **Mailegu-inbertsio produktiboa %2,9** hazi da, banka korporatiboko eta erakundeetako negozioak bultzatuta.

Balantzetik kanpoko produktuen bilakaera ere positiboa izan da, batik bat inbertsio-fondoetan. Kutxabank Taldea **bostgarren posturaino** iritsi da kudeatzaileen rankinean, **bereganatze garbietan** merkatuko buru izan baita **489 milioi** euroekin. Honela, merkatu-kota oinarriko **29 puntu** hazi da.

Bere bezeroek eman dioten **konfiantza** kalifikazio agentziek berretsi dute. Azken hilabeteen, S&Ps eta Fitch agentziek Kutxabanken **balorazioak berretsi** dituzte, perspektiba hobetuta. Fitchen kasuan, Kutxabanken gordailuei A- bikaina eman die.

Covid-19aren krisialdiak sortu duen ziurgabetasuna konfiantza osoz hartu du Kutxabankek. Konfiantza hori bere **kaudimen egoera sendoan** eta **aktiboen kalitate onean** oinarritzen da.

Horrela erakusten dute Taldearen **%16,6ko kaudimen osoak** eta **Core Tier I** ratioak, finantza-sistema osoko onenak izanik. Bere **palankatze ratioa %8,5ekoa** da, eta likidotasunean egoera eroso du, **LCR %205ekoa**.

**Berandutze tasak** ere hobetzen jarraitu du, eta lehen hiruhilekoaren amaieran **%2,95ekoa** zen, finantza-alorreko txikienetakoa. Honela baieztatzen da bere aktiboen kalitatea, finantza-alorraren batez bestekoa baino hobea.

### **Emitzen kontua**

Emitzen kontuan, **'Core' sarrerak** %-1,1 jaitsi dira, eta **263 milioi** eurotan kokatu dira, batik bat interesen marjinean tipoen bilakaerak izan duen eraginarengatik.

Balantzetik kanpoko produktuen balorazio baxuek **zerbitzuen-sarreraren** ohiko hazkundera oztopatu dute, eta **%1,5** igo dira. Zordunen posizioak erreklamatzeko komisioak duen efektua bereiztuta -gaur egun ez da aplikatzen-, komisioak **%2,9** haziko lirateke.

Inbertsio fondoan, pentsio fondoan eta BGAEen **gordailuizana** Cecabanken eskuetan utzi ondoren, martxoan sartu zen indarrean operazio hau, banka-praktika onenen ildotik datorren bateratze-estrategikoan. Operazio honen eraginak **Beste Ustiapen Emaitzak** atalean ikus daiteke.

Emaitza ez-errepikari hau **horniduretara** bideratu da. Atal hau **144,8 milioi** eurora iritsi da. Zuzkiduretan ahalegin garrantzitsua da, Taldearen zuhurtziatzeko mailak sendotzen dituen, erakundearen kostuen oinarriak murriztuz, negozioaren jasangarritasunaren mesedetan. Pandemiak sortutako narriadurak ere aurreratzen ditu.

Inbertsio-zorroaren ekarpen errepikariek eta ustiaketakoko beste emaitza batzuek Marjina Gordina **425 milioi** eurora arte hazi dute.

**Administrazio gastuak %-2,4** murriztu dira, eta amortizazioen atala %4,3 hazi da, Bankua egiten ari den inbertsio digital garrantzitsuengatik.

Hiruhilekoko emaitzen fiskalitatea aintzat izan ondoren, Taldearen **etekin trinkoa 91,7 milioi** eurokoa izan da, iaz garai berean baino **%-13,8 txikiagoa**.

### Kutxabank Taldearen emaitzak, 2020ko martxoan

Miloi euro	2020ko Martxoan	% Δ
Interesen Marjina	136,1	-2,8
Komisioak eta aseguruak (*)	126,8	0,9
<b>Banka negozioaren sarrera errepikariak</b>	<b>262,9</b>	<b>-1,1</b>
Dibidenduak eta baliokidetasuna	25,1	1,3
FOE	-4,5	e.a.
Beste Ustiapen Emaitzak (*)	141,5	e.a.
<b>Marjina Gordina</b>	<b>425,0</b>	<b>44,7</b>
Administrazio Gastuak	-146,7	-2,4
Amortizazioak	-13,9	4,3
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>264,4</b>	<b>103,4</b>
Saneamenduak eta narriadurak	-144,8	16,2
Beste irabazi eta galerak	3,8	-96,1
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>123,5</b>	<b>19,9</b>
Emaitzak eta bestelakoak	-31,7	e.a.
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>91,7</b>	<b>-13,8</b>

### Presidenteorde lehen berria

Kutxabanken akziodunen batzorde nagusiak gaur izan duen bileran, **Rosa Leal kontseilari** izendatu du Kutxa Banka Fundazioaren ordezkari. Gainera, Bankuaren administrazio kontseiluak **lehen presidenteorde** eta **batzorde eragileko kide** hautatu du.

Rosa Leal Zuzenbidean lizentziatua da Bilboko Unibertsitatean, eta Masterra du Enpresen Zuzendaritzan, Finantza Kudeaketako espezialitatean. Finantza Erakundearen Kudeaketa eta Zuzendaritzako Masterra ere badu.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxan eta Kutxan ibilbide profesional luzea izan du, eta ardura desberdinetako hainbat kargu izan du erakundeotan. Idazkaritza Nagusiko eta Idazkaritza Tekniko Nagusiko zuzendari izan da. Kutxa Banka Fundazioa sortu zenetik idazkari izan zen, bai eta Arteaga eta Mirabe Fundazioetan, eta Kutxa Gestión Zerbitzuak-en ere, jubilatatu zen arte.